

## **DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2014**

### **EKONOMIAREN GARAPENA ETA LEHIARKORTASUNA**

1. Animalien ongizatea
2. Kudeaketa, ordezkapen, eta aholkularitzako zerbitzuak ezartzeko laguntza
3. Nekazaritza-ekoizleen elkarteak eta haien batasunak
4. Nekazaritza-sektoreko lanbide-elkarteak (Elkarteak programa)
5. Izaera sindikala duten nekazaritzako erakunde profesionalak
6. Nekazari gazteak
7. Lehiatu programa
8. Lehiatu Sustapena programa
9. Lehiatu Arrantza programa
10. Fruta eta barazki ekoizleen erakundeak
11. Hirugarren herrialdeetan ardoa promozionatzeko MAB programa
12. MAB-Ardoa inbertsioa programa
13. Nekazaritza ekoizpen ekologikoan parte hartzeko laguntzak
14. Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreetan ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzeko programa (I)
15. Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreetan ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzeko programa (II)
16. Nekazaritzaren eta basogintzaren arloetan energia berriztagarrien azpiegiturretan inbertsioak egiteko laguntzak
17. Euskal nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako zientzia, teknologia eta enpresaren arloan ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzen programa
18. Nekazaritzako elikagaien sektoreko elkarte profesionalak (Elkarteak programa)
19. Diru-laguntzak EAE-ko arrantza sektorea ustiatu eta garatzeko azpiegituren lehiakortasuna hobetzeko, arrantza sektoreen kudeaketa arrazional eta iraunkorrari eutsita
20. Arrantza sektoreko elkarte profesionalak (Elkarteak programa)
21. Gaitzeko beka programa pasaia, Ondarroa eta Bermeoko zentroetan
22. EREIN laguntzen programa.
23. LEADER laguntza programa
24. ITSASPEN laguntza programa
25. Euskal Autonomia Erkidegoko landa turismoko establezimenduetan inbertsioak egiteko laguntza programa.
26. Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategietan sasoiko lana egiten dutenentzako ostatuertarako diru-laguntzak

27. Nazioartekotze beka.
28. Global Training beka.
29. Global Lehiaketa
30. KLUSTER programa
31. AURREKLUSTER programa
32. Euskadiko turismo-lehiakortasuna bultzatzeko laguntza-programa
33. Turismo enpresen modernizazioari eta lehiakortasunaren hobekuntzari laguntzak emateko programa
34. Hiri merkataritzaren lankidetzaren dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako HIRIGUNE laguntza programa
35. Merkataritza saltokien modernizazioa bultzatzeko programa
36. Merkataritza dinamizatzeko bulegoetarako laguntzak
37. Merkataritza banaketaren dinamizatzailen (bekadunak) prestakuntzarako laguntza programa
38. GAUZATU-INDUSTRIA programa
39. Inbertsio-proiektuak, eskariak edota kontratuak finantzatzeko aparteko abalen programa
40. BIDERATU BERRIA programa
41. GAITEK programa
42. NETs programa
43. ETORGAI programa
44. ETORTEK programa
45. EMAITEK programa
46. CICs programa
47. IKERTU programa

1.- Izenburua

**ANIMALIEN ONGIZATEA**

2.- Araua

100/2012 Dekretua, maiatzaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko esnetarako behien abeltzaintza-ustategietan abereen ongizatea hobetzeko laguntzei buruzkoa. 2014. urterako laguntzen deialdia egin zen Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunerako sailburuak 2014ko uztailaren 30ean eman zuen Aginduaren bidez.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Instalazioetan ekoizpenerako neurri eta metodo egokiak jar daitezela sustatzea, araubide europarrak agintzen dituen baldintzak betetzeko eta animaliek ustategietan izan behar duten ongizatearen gaineko eskakizunak inplementatzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Horretarako deialdia egiten den hirugarren urtean, 239 onuradun izan dira, eta, guztira, 500.000,00 € eman dira laguntzetan.

1.- Izenburua

**KUDEAKETA, ORDEZKAPEN, ETA AHOIKULARITZAKO ZERBITZUAK EZARTZEKO LAGUNTZA**

2.- Araua

133/2008 Dekretua, uztailaren 8koa, nekazaritzarako egiturazko eta ingurumeneko laguntzei buruzkoa, 2014ko irailaren 24ko Aginduaren bidez deitua izan dena 2014. urterako.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Nekazaritza-ustategiei kudeaketa, ordezkapen eta aholkularitzako zerbitzuak ematea da programa honen xedea, eta, horren bidez, haien errendimendu orokorrak handitzea eta araudi europarrak agintzen dituen betebeharrak betetzeko moduan izatea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Adierazitako arauen bidez arautu eta deitu dira zerbitzu horiek 2014. urterako. Guztira, 4 erakunde atxiki dira neurri horretara, eta 34.454,12 €-ko diru-laguntzak eman dira orotara funts propioen kontura. FEADER funtsen bidez osatu da diru-zenbateko hori.

1.- Izenburua

**NEKAZARITZA-EKOIZLEEN ELKARTEAK ETA HAIEN BATASUNAK**

2.- Araua

13/2004 Dekretua, urtarrilaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazarien Elkarteei eta horien Batasunei buruzkoa. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunerako sailburuak 2014ko urriaren 8an emandako Aginduaren bidez deitua izan da 2014. urterako.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua da egituratze produktiboa eta komertziala lortzea, Nekazaritzako Ekoizleen Elkarteen bidez.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Dekretu horren bidez ezarri zen Nekazaritzako Ekoizleen Elkarteak aitortzeko araubidea, eta, 2014. urtean, onuradun bat aurkeztu da. 200.000,00 €-ko diru-laguntzak eman dira.

1.- Izenburua

**NEKAZARITZA-SEKTOREKO LANBIDE-ELKARTEAK (ELKARTEAK PROGRAMA)**

2.- Araua

233/2011 Dekretua, azaroaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresariari zuzendutako laguntzei buruzkoa, 2014ko uztailaren 30eko Aginduaren bidez deituak 2014. urterako.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Nekazaritzako elkarte profesionalen eta enpresa-elkarteen jarduerak eta ekimenak sustatzen dira, haien interesen ordezkapena eta defentsa bideratzeko nekazaritza sektoreko jarduerak betetzeko baldintzak hobetzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntzen ildo hau urte bat baino gehiagotan izan da indarrean, eta egiaztatu da finkatu egin dela nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreetako egitura jakin batzuetan. Nagusiki, elkarte profesionalak egindako lanaren bidez gertatu da hori. Testu berri bat eman zitzaion arauari 2011. urtean, eta laguntzen deialdia egin da 2014. urterako.

Elkarte horiek lankidetzan estuan dihardute aspaldian Sailarekin azken horrek bultzatzen dituen jarduerak jakinak aurrera eramateko, eta laguntza handia ematen dute sektore jakinetan krisi-garaian hartu behar diren neurri garrantzitsuak ezartzeko. Guztira 21 espediente izapidetu dira 2014. urtean Nekazaritza eta Abeltzaintzaren arloan, eta 424.990,73 € bideratu dira horretarako.

1.- Izenburua

**IZAERA SINDIKALA DUTEN NEKAZARITZAKO ERAKUNDE PROFESIONALAK**

2.- Araua

Agindua, 2014ko urriaren 22koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunerako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan izaera sindikala duten Nekazaritzako Erakunde Profesionalentzako 2014ko ekitaldirako laguntzetarako deialdia egiten duena

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Izaera sindikala duten nekazaritzako erakunde profesionalek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin egiten duten elkarrizketa soziala bideratzeko lanak laguntzen dira. Elkarrizketarako sortu diren foroetan gauzatzen dira lan horiek, euskal nekazaritza-sektoreari eragiten dioten gaiak lantzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Euskal Landa Ingurunea Garatzeko 1997-2000 Euskal Plana onartu ondoren, eragile ekonomiko eta sozialekin elkarrizketan aritzeko foro batzuk sortu dira. Foro horiek sortzeko baldintza izan da izaera sindikala duten nekazaritza-elkarte profesionalei laguntzak emateko irizpideak berritzea.

Hori horrela, administrazioarekin egiten dituzten elkarrizketa-jarduerek osatzen dute elkarte horiei laguntza emateko aintzat hartu behar den irizpideetako bat, haien bertaratzea eta partaidetza bultzatzeko.

Aurten, sektorean dauden 5 elkarte profesionalei dagozkien espedienteak izapidetu dira, eta laguntzen zenbatekoa 201.000,00 €-koa izan da.

1.- Izenburua

**NEKAZARI GAZTEAK**

2.- Araua

133/2008 Dekretua, uztailaren 8koa, Nekazaritza-sektorearentzako egiturazko eta ingurumenezko diru-laguntzei buruzkoa.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza osagarria nekazari gazteei, 133/2008 Dekretuko 9. artikulua arautzen duenaren osagarri. Diru-laguntzen ildo hau ezarri da beste baldintza batzuk betetzen dituztenei laguntzeko. Baldintza horietako batzuk dira, esaterako, sarrera-proiektu bat aurkeztea, inbertsio jakinak egitea edo kaltetutako eremuetan ezartzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Adierazitako dekretu horren bidez, diru-laguntzen ildo berri bat arautu zen, zenbateko osagarri baten bidez laguntzeko gazteen ezarpenei. Foru-aldundien bidez egiten da haien kudeaketa. Guztira, laguntza osagarrien 33 onuradun izan dira 2014an, eta 700.000,00 € eman dira laguntzetan.



1.- Izenburua

**LEHIATU PROGRAMA**

2.- Araua

Urriaren 7ko 172/2008 Dekretuak, nekazaritza- eta elikagai-produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko eta sustatzeko laguntzei buruzkoak (LEHIATU programa), nekazaritza- eta elikagai-produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko eta sustatzeko laguntzak finkatzen eta arautzen ditu.

Agindua, 2014ko uztailaren 30ekoa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, nekazaritza- eta elikagaigintza-produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko eta sustatzeko 2014. urteko laguntzetarako deialdia egiten duena (LEHIATU programa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

LEHIATU programak basogintza-, nekazaritza- eta elikagaigintza-produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko eta sustatzeko diru-laguntzen erregimena ezartzen eta arautzen du, eta honako hauek biltzen ditu:

- a) II. kapituluaren arloko kofinantzatutako laguntzak eta estatuaren laguntzak, nekazaritzako eta basogintzako sektoreetarako 2007-2013 aldiko estatu-laguntzei buruzko erkidegoko zuzentarauei jarraiki,
- b) III. kapituluan jasotako ETEetarako laguntzak, Batzordearen urtarrileko salbuespen araudi orokorrari jarraiki, EBko Itunaren 87. eta 88. artikulua enpresa txiki eta ertainetarako estatuko diru-laguntzetan aplikatzeari buruzkoari.
- c) IV. kapituluko ETEetarako laguntzak, elikagaiak sustatzeko laguntza gisa, Minimien erregelamenduari jarraiki.

Programa hau 2013an amaitzea aurreikusi zuten arren, beste ekitaldi batez luzatu da, 2014a arte, baita landa-garapenerako programa ere. Horrenbestez, deialdi honek LEHIATU programa amaitutzat jotzen du.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014an, laguntza-ildo honen bidez, II. eta III. kapituluetan 79 inbertsio proiektu onartu dituzte, hau da, guztira 15,5 milioi euroko inbertsioa. Elikagai Industrien Erregistroak 1.300 establezimendu dituela kontuan hartuta (ia erdia ardogintzaren sektoreko enpresak dira, eta ez dira programa honetan sartzen), sektorean eragin handia izango du.

1.- Izenburua

**LEHIATU SUSTAPENA PROGRAMA**

2.- Araua

Irailaren 23ko 179/2014 Dekretuak, nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzei buruzkoak, nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak EAetik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzen erregimena ezartzen eta arautzen du (LEHIATU SUSTAPENA programa). Deialdia: AGINDUA, 2014ko urriaren 15ekoa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, 2014ko ekitaldirako laguntza-deialdia egiten duena, irailaren 23ko 179/2014 Dekretuaren babesean.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

LEHIATU SUSTAPENA programak basogintza-, nekazaritza- eta elikagaigintza-produktuak sustatzeko diru-laguntzen erregimena ezartzen eta arautzen du, ekintzat indibidualak eta sustapen-programak hartzen ditu diruz lagun daitezkeen ekintza gisa.

- a) Jarduera hauek hartzen dira ekintza indibidualtzat: merkataritzako azoka edo lehiaketa profesionaletan eta internazionalen erakusle gisa parte-hartzea, banako edo taldeko standetan produktuak aurkeztuz merkataritza-jarduerak egiteko; eskatzailea azoka profesionalak eta internazionalak bisitatzea joatea; Estatz kanpoko merkatuetan produktuak zuzenean aurkezteko misioak, adibidez, enpresa eskatzailearen produktuak aurkeztea eta/edo dastatzea, kanpoko merkatu horrekin merkataritza-harremanak sendotzeko eta produktuak merkatu horretara esportatzeko; alderantzizko misioak, baldin eta EAera soilik mugatzen badira, hau da, atzerriko erosleak edo preskriptoreak gonbidatzea EAeko ekoizpen-plantak bisitatzea; Estatutik kanpoko merkatuetako salmenta-puntuak sustatzeko ekintza puntualak eta bereziak, hain zuzen ere, produktua publizitatzea eta dastatzea kontsumitzaileen oniritzia lortzeko; eta enpresaren irudiari eta produktuei buruzko material dibulгатiboa, katalogoak eta ikus-entzunezkoa sortzea, gutxienez atzerriko hizkuntza batean.
- b) Sustapen programak: Sustapen-programetan, plan edo programa integral bat prestatu behar da, aurreko paragrafoan aurreikusitako ekintza indibidualen artetik gutxienez sei jarduera burutzeko hiru herrialdetan.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014an, diru-laguntzen ildo honetan 57 gastu-proiektu onartu dira, kanpo merkatuetan promozioa egiteko, hurrengo sektore hauetan: ardogintza eta ardoen ontzea (proiektuen % 61) bestelako industriak (% 22) eta arrantza eraldatzeko industria (% 12). Zuzeneko diru-laguntza 0,28 milioi eurokoa izan da.

1.- Izenburua

**LEHIATU ARRANTZA PROGRAMA**

2.- Araua

226/2010 DEKRETUA, abuztuaren 31koa, akuikultura eta arrantzako produktuak transformatu eta merkaturatzeko laguntzei buruzkoa (LEHIATU ARRANTZA programa), eta Agindua, 2014ko uztailaren 9koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko akuikultura eta arrantzako produktuak transformatu eta merkaturatzeko laguntzetarako 2014rako deialdia egiten duena (Arrantzarako Europako Funtsak).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honek akuikultura eta arrantzako produktuak transformatu eta merkaturatzeko laguntzen deialdia egiten du. Laguntza horiek Europako Kontseiluaren 1198/2006 Erregelamenduan (EE), 2006ko uztailaren 27koan, jasota daude, eta Arrantzarako Europako Funtsekin kofinantzatzen dira.

Programa hau 2013ko ekitaldian amaitzea aurreikusi zen arren, beste ekitaldi batez luzatu da, 2014 arte, Arrantzarako Europako Funtsa finantzatzen duen programa bezala.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko ekitaldian, 16 inbertsio-proiektu aurkeztu dira. Horietatik hamabi arrantza-produktuen transformazio-sektorekoak dira eta lau merkaturatze-azpisektorekoak. Aurreko ekitaldian baino % 55 proiektu gutxiago aurkeztu dituzte, baina espedienteko zuzeneko inbertsio txikiagoa eragin dute. Diru-laguntzek 1,1 milioi euroko laguntza eta 5,5 milioi euroko inbertsioa eragin dituzte. Elikagaien Industriako Erregistroan 200 establezimendu daudela kontuan hartuz, sektorean izango duen eragina txikia izango da. Horrek agerian jartzen du sektoreak jasan duen krisia, baina laguntza beharrezkoa da, ez dagoelako besterik.

1.- Izenburua

**FRUTA ETA BARAZKI EKOIZLEEN ERAKUNDEAK**

2.- Araua

56/2000 Dekretua, martxoaren 21ekoa, fruta eta barazki ekoizleen diru-laguntzak erregulatzekoa.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Fruten eta barazkien sektoreari buruzko Erkidegoko arauditik deribatutako fruta eta barazki ekoizleentzako diru-laguntzak ematea. Diru-laguntza hauek produktuen promozioarekin lotuta daude.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko ekitaldian, bi enpresak jaso zuten programa honen bidezko diru laguntza, guztira, 319.446,83 €-koa, Europako FEAGA funtsak eta EAeko aurrekontuetako funtsak kontuan hartuta. Enpresa hauek EBk onartutako erakundeak errekonozitzeko sistema betetzen dute.

1.- Izenburua

**Hirugarren herrialdeetan ardoa promozionatzeko MAB programa**

2.- Araua

227/2014 DEKRETUA, abenduaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko mahastigintza eta ardogintza sektoreari laguntzeko, Europaren laguntza-neurriak aplikatu eta garatzeko dena. Helburu bera zuen abenduaren 22ko 630/2009 Dekretua ordezkutzen du. Agindua, 2014ko urtarrilaren 29koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuei buruzko sustapen- eta informazio-programetarako zein - egintzetarako laguntzen deialdia, 2014. urterakoa, egiteko dena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Hirugarren herrialdeetan ardoa promozionatzeko MAB programak Europar Batasunak mahastizaintza eta ardogintzaren sektorea laguntzeko neurrien bidezko diru-laguntzak ezartzen eta erregulatzen ditu (MAB) hirugarren herrialdeetan ardoa promozionatzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Diru-laguntzaren 2014-2015 FEAGA aplikazio aldian, 41 eskaera onartu dira, eta guztira 9.208.515,00 euro eman dira laguntzetan.

1.- Izenburua

**MAB-Ardoa inbertsioa programa**

2.- Araua

227/2014 DEKRETUA, abenduaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko mahastigintza eta ardogintza sektoreari laguntzeko, Europaren laguntza-neurriak aplikatu eta garatzeko dena. Helburu bera zuen abenduaren 22ko 630/2009 Dekretua ordezkutzen du. Agindua, 2014ko urtarrilaren 29koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuei buruzko sustapen- eta informazio-programetarako zein - egintzetarako laguntzen deialdia, 2014. urterakoa, egiteko dena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

MAB-Ardoa inbertsioa programak Europar Batasunak mahastizaintza eta ardogintzaren sektorea laguntzeko neurrien bidezko diru-laguntzak ezartzen eta erregulatzen ditu (MAB), mahastizaintza eta ardogintzaren sektoreko produktuak transformatzeko edo merkaturatzeko jardueretarako.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Diru-laguntzaren 2014-2015 FEAGA aplikazioaldian, 53 eskaera onartu dira, eta guztira 5.049.775 euro eman dira laguntzetan.

1.- Izenburua

**NEKAZARITZA EKOIZPEN EKOLOGIKOAN PARTE HARTZEKO LAGUNTZAK**

2.- Araua

3/2012 Dekretua, urtarrilaren 31koa, nekazaritza-ekoizpen ekologikoan parte hartzeko laguntzei buruzkoa.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko uztailaren 30eko Agindua, urtarrilaren 31ko 3/2012 Dekretuaren babesean 2014ko ekitaldirako nekazaritza-ekoizpen ekologikoan parte hartzeko diru-laguntzetarako deia egiten duena.

3.- Diru-laguntzen programaren deskribapen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen programa honek nekazariak ekoizpen ekologikoan parte hartzea sustatzen du; izan ere, nekazariak Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluari ordaintzen dizkioten kuoten % 80 finantzatzen du. Laguntza honekin nekazaritza ekologikoan parte hartzeak nekazariari ekartzen dion gastuen areagotzea konpentsatzea lortu nahi da, kostu horiek ez baitira beti behar bezala konpentsatzen merkatuan.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Azkenean, 246 nekazari onuradun izan dira eta laguntzen kopurua 24.000,00 € izan da.

1.- Izenburua

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NEKAZARITZAREN, ELIKAGAIEN ETA ARRANTZAREN SEKTOREETAN IKERKETA, GARAPENA ETA BERRIKUNTZA SUSTATZEKO PROGRAMA (I)**

2.- Araua

Urriaren 7ko 423/2013 Dekretuan –Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreetan ikertzeko, garatzeko eta berritzeko laguntzak arautzen dituenearin oinarritu da.

2014ko deialdia Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko uztailaren 30eko Aginduaren bitartez egin da.

Aipatutako 423/2013 Dekretuaren II., V. eta VII. kapituluetan aurreikusitako laguntza-ildoen deialdia egin da.

3.- Diru-laguntzen programaren deskribapen laburra eta helburuak

EAEko nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreetan eraginkortasuna areagotzea, lehiakortasuna hobetzea, hazkunde iraunkorrean laguntzea eta sektore horietan integratutako agenteen lankidetzaren sustatzea.

Era berean, laguntza hauekin nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreen ikerkuntza, garapena eta berrikuntza suspertu eta sustatu nahi da.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko ekitaldiko I+G jarduerak sustatzeko neurrien deialdiaren bidez sektoretik bertatik eskatutako 36 ekimen berri lagundu dira, hain zuzen ere atzemandako problematika garrantzitsueni irtenbidea bilatzera bideratutako I+G proiektuak gauzatzeko. EAEko Aurrekontu Orokorren kargura diruz lagundutako guztizko zenbatekoa 1.339.174,77 € izan da eta FEADER Erkidegoko Funtsen kargura diruz lagundutakoa berriz 16.306,56 €.

Dagokigun deialdian izandako parte-hartzearen maila aurrekoetan baino txikiagoa izan da; 41 eskaera izan dira.

Inpaktu soziala oso handia da; izan ere, oso programa finkatua da eta nekazaritzako eta arrantzako enpresei eta elkarteei beren jardueran atzemandako zenbait problematikari irtenbidea emateko aukera eskaintzen die, ikerketarekin eta garapen teknologikoarekin lotutako ekintzen bidez eta betiere berrikuntza-ekintzei arreta berezia emanez.



1.- Izenburua

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NEKAZARITZAREN, ELIKAGAIEN ETA ARRANTZAREN SEKTOREETAN IKERKETA, GARAPENA ETA BERRIKUNTZA SUSTATZEKO PROGRAMA (II)**

2.- Araua

Urriaren 7ko 423/2013 Dekretuan –Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreetan ikertzeko, garatzeko eta berritzeko laguntzak arautzen dituenearan oinarritu da.

2014ko deialdia Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko urriaren 15eko Aginduaren bitartez egin da.

Aipatutako 423/2013 Dekretuaren VI. kapituluan aurreikusitako laguntza-ildoan deialdia egin da.

3.- Diru-laguntzen programaren deskribapen laburra eta helburuak

Programa honetan nekazaritzako, arrantzako eta elikadurako sektoreetan ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-jarduerak sustatu eta bultzatzera zuzendutako laguntzak (interesik gabeko aurrerakin itzulgarriak) biltzen dira.

Programaren helburua da prozesu-arloko berrikuntzaren bitartez nekazaritza-elikagaien enpresen eta erakundeen lehiakortasun-ahalmena handitzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko ekitaldiko deialdiaren bitartez prozesu-arloko berrikuntza-proiektuak gauzatzeko 3 ekimen berri lagundu dira. EAEko Aurrekontu Orokorren kargura diruz lagundutako guztizko zenbatekoa 572.172,15 € izan da. Parte-hartzeari dagokionez, deialdi honetan 7 eskaera izan dira.

Inpaktu soziala oso handia da; izan ere, oso programa finkatua da eta nekazaritzako eta arrantzako sektoreko enpresei eta elkartei beren jardueran atzemandako zenbait problematikari irtenbidea emateko aukera eskaintzen die, prozesu-arloko berrikuntza-ekintzen bidez.

1.- Izenburua

**NEKAZARITZAREN ETA BASOGINTZAREN ARLOETAN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN AZPIEGITURETAN INBERTSIOAK EGITEKO LAGUNTZAK**

2.- Araua

Nekazaritzaren eta basogintzaren arloetan energia berriztagarrien azpiegituretan inbertsioak egiteko laguntzak arautzen dituen azaroaren 16ko 302/2010 Dekretuan oinarritzen da.

2014ko deialdia Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko urriaren 8ko Aginduaren bitartez egin da.

3.- Diru-laguntzen programaren deskribapen laburra eta helburuak

Programa honen bidez energia nekazaritza- edota baso-ustategietatik eratorritako hondakin organikoetatik sortzeko instalazioetan inbertitzeko laguntzak ematen dira. Instalazioek honako helburu hauetakoren bat lortzeko balio behar dute:

- Nekazaritza-ustiapenen energia-gastuan aurrezteko.
- Nekazaritza- edota baso-ustategietatik eratorritako biomasaren tratamenduaren ondoriozko ingurumen-hobekuntza.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014. urteko deialdia bete gabe utzi da Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren 2015eko urtarrilaren 28ko Ebazpenaren bidez.

1.- Izenburua

**EUSKAL NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURAREN SEKTOREETAKO ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA ENPRESAREN ARLOAN IKERTZAILE ETA TEKNOLOGO GAZTEAK PRESTATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMA**

2.- Araua

Euskal nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako zientzia, teknologia eta enpresaren arloan ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzak arautzen dituen urriaren 23ko 185/2007 Dekretuan –azaroaren 24ko 608/2009 Dekretuak aldatutakoan– oinarritzen da.

2014ko deialdia Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko urriaren 8ko Aginduaren bitartez egin da.

3.- Diru-laguntzen programaren deskribapen laburra eta helburuak

Honako xede hau duten beka deitzea: nekazaritzako, elikadurako eta arrantzako sektoreetako arlo zientifiko-teknologikoetan eta merkatuen, marketinaren eta enpresa-antolamenduaren arloetan gazte ikertzaile eta teknologoak kualifikatzea eta espezializatzea ahalbidetzea, ikerketarekin, garapen teknologikoarekin edo berrikuntzarekin lotutako proiektua garatuz. Bi beka-programa ezartzen dira:

- A) Prestakuntzan diharduten gazte ikertzaileei zuzendutako laguntza-programa.
- B) Teknologo gazteei prestakuntza ematera zuzendutako laguntza-programa.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programa hauen bidez 16 beka eman dira, 10 teknologo gazteei prestakuntza ematera zuzendutako laguntza-programan eta 6 prestakuntzan diharduten gazte ikertzaileei zuzendutako laguntza-programan. Guztiak EAEko nekazaritzako eta arrantzako sektorearentzat interes bereziko arlotzat hartzen diren arloetan. 58 eskatzailek hartu duten parte deialdi honetan (38 emakumek eta 20 gizonek). Neurri honen inpaktu soziala nabaria da, hain zuzen ere neurri honen bidez teknologoei sektoreko enpresetan prestakuntza jasotzeko aukera eskaintzen zaielako eta ondoren langile kualifikatu eta espezializatuak enpresa-sarera sartzeko ahalbidetzen delako.

1.- Izenburua

**NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEKTOREKO ELKARTE PROFESIONALAK (ELKARTEAK PROGRAMA)**

2.- Araua

Azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuan –Euskal Autonomia Erkidegoko elikagai, arrantza eta nekazaritzako sektoreetako enpresa- eta lanbide-elkarte zein federazioentzako laguntzak arautzen dituenean– oinarritu da.

2014ko deialdia Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko uztailaren 30eko Aginduaren bitartez egin da.

3.- Diru-laguntzen programaren deskribapen laburra eta helburuak

Nekazaritzako elikagaien elkarte profesionalen eta enpresa-elkarteen jarduerak eta ekimenak sustatzea, euren interesen ordezkaritza eta defentsa egiteko baita sektore horren jardun-baldintzak hobetzeko ere.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntza-ildo hau hainbat ekitalditan aplikatu ondoren ikus daiteke nekazaritzako elikagaien sektoreko egiturak sendotu egin direla, nagusiki elkarte profesionalek garatu duten lanari esker. Erakunde horiek Sailarekin aktiboki lankidetzan ari dira Sailak sustatutako zenbait jardunetan, baita zenbait sektoreren krisialdietan gauzatu beharreko neurri garrantzitsuetan ere. 2014ko ekitaldian 20 espediente izapidetu dira eta laguntzetara bideratutako zenbatekoa 176.400 € izan da.

1. Izenburua

**DIRULAGUNTZAK EAE-KO ARRANTZA SEKTOREA USTIATU ETA GARATZEKO AZPIEGITUREN LEHIAKORTASUNA HOBETZEKO, ARRANTZA SEKTOREEN KUDEAKETA ARRAZACIONAL ETA IRAUNKORRARI EUTSITA**

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko maiatzaren 28koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko akuikultura- eta arrantza-sektoererako dirulaguntzetarako 2014ko deialdia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

EAE-ko arrantza sektorea ustiatu eta garatzeko azpiegituren lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak, arrantza baliabideen kudeaketa arrazional eta iraunkorraren testuinguruan, ondoko laguntza lineen bidez: arrantza jarduera behin betiko edo behin behinean gelditzea, arrantza ontzietan inbertsioak eta sailkatzea, kostaldeko artisautza arrantza, konpentsazio sozioekonomikoak, akuikultura, ekintza kolektiboak, proiektu aitzindariak eta merkatu berrien garapena eta sustapen kanpainak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

- Ontzidia behin betiko geldiaraztea. Arrantza ahalegina egokitzeko 9 proiektu onartu dira, beraz, desagerrarazitako tonajea 1.581 GT izan da. Inguraketako 4 arrantza-ontzi, arte xeheen 3 ontzi, 2 arraste ontzi, denak Kantauriko ipar-ekialdeko arrantza ahalegina egokitzeko planaren eta Iparraldeko legatzaren arrantza ahalegina egokitzeko planaren barruan.
- Inbertsioak arrantza-ontzietan eta hautakortasuna Arrantza ontziak modernizatzeko 31 inbertsio proiektu onartu dira, helburuak ondokoak izaki: ontzietan laneko segurtasuna, laneko baldintzak, higiena, produktuen kalitatea, energiaren atarrementua eta sailkapena hobetzea. .
- Akuikultura Akuikultura instalazioetarako proiektua onartu da eta akuikulturaren inguruko azterlanak egin dira.
- Konpentsazio sozioekonomikoak Aurten arrantzale gazteek eginiko inbertsio proiektu bi onartu dira, asmoa bigarren eskuko arrantza ontzi baten jabetza eskuratzea zen.
- Ekintza kolektiboak 2 proiektu onartu dira, bat arrantza sektoreko langileen norbanakoaren babes ekipoei dagokie.
- Proiektu pilotuak Onartutako proiektuen artean, batetik, espezieen jarraipen eta ebaluazio azterlanak daude, arrantza ahalegina kudeatu eta esleitzeko planei buruzko erabakiak hartzeko. Bestetik, akuikulturaren inguruko ezagutzak eskuratu eta hedatzeko azterlanak.
- Merkatu berriak eta sustapen kanpainak garatzea: Euskal Autonomia Erkidegoan zenbait herritan arrantza produktuak sustatzeko 4 proiektu.

1.- Izenburua

**ARRANTZA SEKTOREKO ELKARTE PROFESIONALAK (ELKARTEAK PROGRAMA)**

2.- Araua

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko ekianaren 4ko Agindua, zeinaren bitartez 2012ko ekitaldiari dagokionez, iragarri egiten baita EAeko elikagai, arrantza eta nekazaritzako sektoreetako enpresa eta lanbide elkarte zein federazioentzako laguntzak emateko deialdia, zehazki, Azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuaren («Elkarteak» Programa) markoaren barruan.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Arrantza sektoreko elkarte profesional eta enpresariaren jarduerak eta ekimenak sustatzea, euren interesak ordezkatu eta babestu eta arrantza sektoreko jarduerak garatzeko baldintzak hobetzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntza lerro hori ekitaldi batzuetan aplikatu ostean, nekazaritza eta elikadura sektorearen egiturak sendotzen dira erakunde profesionalek egindako lanari esker batez ere. Erakunde horiek ari dira lankidetzan sailarekin berorrek bultzatutako zenbait jardueratan, baita sektore batzuen krisialdian egin beharreko neurri garrantzitsuetan ere. 2014ko ekitaldian 8 espediente izapidetu ziren, hau da, 178.844 € laguntzetan.

1.- Izenburua

**GAITZEKO BEKA PROGRAMA PASAIA, ONDARROA ETA BERMEOKO ZENTROETAN**

2.- Araua

AGINDUA, 2013ko azaroaren 13a, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena. Honen bidez, beka-deialdia egiten da, 2014-2015 ikasturtean, nautikako eta arrantzako irakaskuntzen arloko ikasketak egiteko honako hauetan: Blas Lezo - Pasaiaiko Itsas Arrantzarako Ikastetxea; Bermeoko Itsas-Arrantzako Prestakuntzarako Eskola, eta Ondarroako Antiguako Ama Itsas Arrantzarako Lanbide Heziketako ikastetxean.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Arrantzarekin zerikusia duten sektoreetako langileen trebakuntza-politika egokiari eustea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014an, 205 beka eman dira, nautikari eta arrantzari buruzko ikasketak Blas Lezo - Pasaiaiko Itsas Arrantzarako Ikastetxean egiteko (goi mailako heziketa zikloa: 42, Erdi mailako heziketa zikloak: 33, eta Itsasbazterreko patroï balioaniztuna: Bermeoko Itsas-Arrantzako Prestakuntzarako Eskolan (goi mailako heziketa zikloa: 11, Erdi mailako heziketa zikloak: Ondarroako Antiguako Ama Itsas Arrantzarako Lanbide Heziketako ikastetxean (goi mailako heziketa zikloa: 62, Erdi mailako heziketa zikloak: 15, eta Itsasbazterreko patroï balioaniztuna: 8).

1.- Izenburua

**EREIN laguntzen programa.**

2.- Araua

171/2008 DEKRETUA, urriaren 7koa, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-inguruneak sustatu eta garatzeko laguntzak arautzen dituena.

2014o uztailaren 16ko Agindua, Ekonomia Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, urriaren 7ko 171/2008 Dekretu horretako laguntza horietarako 2014ko deialdia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa hau dirulaguntza batzuk emateko da, EAEko landa-inguruetan sustapenerako eta garapenerako jarduerak eta inbertsioak finantzatzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 376 eskari aurkeztu dira, eta, haietatik, 223 proiekturi eman zaio baieztatu erantzuna, 2014ko uztailaren 16ko Agindu horren itzalpean.

Dirutan, emandako laguntzak 6.642.193,93 eurotakoak izan dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretatik eman dira.

Ikus dezagun aurrekontu-memorian zein helburu zeuden erdiesteko moduan jasota, eta benetan zein hitzartu diren:

<b>2014</b>	<b>LANDA-GARAPENA</b>
	<p><b>HELBURUA: BIZI-KALITATEA HOBETZEA ETA JARDUERA EKONOMIKOAK ETA SOZIALAK DIBERTSIFIKATZEN LAGUNTZEA, LANDA-INGURUNEAN EKIMEN GEHIAGO SOR DAITEZEN SUSTATZEARREN.</b></p> <p><u>Ekintza:</u> Bizi-kalitatea hobetzearekin eta jarduera ekonomikoa dibertsifikatzen laguntzearekin zerikusia duten proiektuetarako laguntzak.</p>
<b>Magnitudea Aurreikusitakoa/ Hitzartutakoa</b>	<p>Adierazlea.- Oinarrizko zerbitzuak eta ekipamenduak ezartzeko laguntza.</p>



<p><b>50 / 78</b></p>	<p><b>Lagundutako proiektuen kopurua.</b></p> <p>Adierazlea.- Landa-inguruetako biztanleria berritzeko eta garatzeko laguntza.</p>
<p><b>15 / 31</b></p>	<p><b>Lagundutako proiektuen kopurua.</b></p> <p>Adierazlea.- Landa-ondarea zaintzeko eta hobetzeko laguntzak.</p>
<p><b>10 / 0</b></p>	<p><b>Lagundutako proiektuen kopurua.</b></p> <p>Adierazlea.- Enpresetarako eta enpresen azpiegitura lagungarrietarako laguntzak.</p>
<p><b>10 / 4</b></p>	<p><b>Lagundutako enpresen kopurua.</b></p>
<p><b>2 / 7</b></p>	<p><b>Zenbat ekonomia-jarduera-ingurune lagundu diren.</b></p> <p>Adierazlea.- Enplegua sortzen laguntzea.</p>
<p><b>25 / 88</b></p>	<p><b>Zenbat enplegu hitzartu diren.</b></p> <p>Adierazlea.- Etxebizitzatarako laguntzak.</p>
<p><b>10 / 16</b></p>	<p><b>Zenbat etxebizitza lagundu diren.</b></p>

1. Izenburua

**LEADER laguntza programa**

2.- Araua

Azaroaren 11ko 185/2008 Dekretuaren bidez, Leader ikuspegiaren aplikazioa arautzen da, 2007-2013 aldiko Euskadiko Landa Garapen Iraunkorreko Programaren arabera.

Laguntzak arautzen dituen otsailaren 21eko 22/18508 Dekretuak ezarritakoa betetzeko, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2014ko uztailaren 16ko Agindua argitaratu zen, eta bertan, aipatu laguntzetarako deialdia, 2014ko ekitaldirako, egiten zen.

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Xedea Euskal Autonomia Erkidegoko landa eremuetan bizi kalitatea hobetzeko eta landa ekonomia dibertsifikatzeko inbertsioak eta jarduerak finantzatzeko laguntzak ematea da.

Laguntzak kudeatzeko, Leader filosofia erabili da: egokiago da EAeko landa-garapenerako politikak eta prozesuak sendotzeko estrategien barruan, Tokiko Ekintzako Taldeak ezarri duten garapen endogenoaren baitan garatzeko (bottom-up ikuspegia).

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Gorago aipatutako 2014ko uztailaren 16ko Aginduaren harira, aurkeztutako 170 eskabideetatik 123 proiektu onartu dira. Emandako laguntzen zenbatekoa 4.062.139,44 euro da eta haietatik, 1.299.884,61 eman dira Europako FEADER funtsaren kontura.

Jarraian aurrekontu memorian jasotako helburuak eta benetan konprometitu direnak aipatuko dira:

<b>2014</b>	<b>LANDA GARAPENA</b>
	<p><b>HELBURUA: LANDA EREMUAN BIZI KALITATEA HOBETZEA ETA EKIMENAK SORTZEA SUSTATZEKO EKONOMIA ETA JENDARTE JARDUEREN DIBERTSIFIKAZIOA SUSTATZEA</b></p>
<b>Magnitudea</b>	<p><u>Ekintza:</u> Bizi kalitatea hobetzearekin eta ekonomia jardueraren dibertsifikazioarekin lotutako proiektuak sustatzeko laguntzak.</p>
<b>Aurreikusitakoa/Konprometitua</b>	<p>Adierazlea.- Oinarrizko zerbitzuak eta ekipamenduak ezartzeko laguntza.</p>

<p><b>20 / 10</b></p>	<p><b>Lagundutako proiektu kopurua.</b></p> <p>Adierazlea.- Lanbide informazioko eta prestakuntzako jarduerentzako laguntza</p>
<p><b>2 / 0</b></p>	<p><b>Jarduketa kopurua.</b></p>
<p><b>15 / 0</b></p>	<p><b>Onuradun pertsonen kopurua</b></p> <p>Adierazlea.- Arrantza sektoreko produktu, prozesu eta teknologia berriak garatzeko lankidetzarako laguntza.</p>
<p><b>2 / 1</b></p>	<p><b>Lagundutako proiektu kopurua.</b></p> <p>Adierazlea.- Nekazaritzaz kanpoko jardueretarako dibertsifikaziorako proiektuak sustatzea</p>
<p><b>7 / 8</b></p>	<p><b>Lagundutako proiektu kopurua.</b></p> <p>Adierazlea.- Mikroenpresak sortu eta garatzeko laguntza ematea.</p>
<p><b>20 / 58</b></p>	<p><b>Lagundutako mikroenpresa kopurua.</b></p> <p>Adierazlea.- Turismo jarduerak sustatzea</p>
<p><b>30 / 43</b></p>	<p><b>Lagundutako proiektu kopurua.</b></p> <p>Adierazlea.- Ekonomia agenteen informaziorako eta prestakuntzarako laguntza.</p>
<p><b>5 / 4</b></p>	<p><b>Lagundutako proiektu kopurua.</b></p>
<p><b>40 / 53</b></p>	<p><b>Atenditutako agente kopurua</b></p>

1.- Izenburua

**ITSASPEN laguntza programa**

2.- Araua

Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko guneak garatzeko eta bultzatzeko laguntzak arautzeko otsailaren 21eko 22/2012 Dekretua

Laguntzak arautzen dituen otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuak ezarritakoa betetzeko, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko apirilaren 4ko Agindua argitaratu zen, eta bertan, aipatu laguntzearako deialdia, 2014ko ekitaldirako, egiten zen.

3. Dirulaguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Xedea: Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak garatzeko eta bultzatzeko laguntzak emateko araubidea ezartzea eta arautzea, eremuotako oinarrizko zerbitzuak eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko eta kostaldeko herriak biziberritzen, berritzen eta garatzen lagunduko duten jardura ekonomiko berriak sortzen laguntzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Horago aipatutako 2014ko uztailaren 16ko Aginduaren harira, aurkeztutako 85 eskabideetatik 26 proiektu onartu dira.

Emandako laguntzen zenbatekoa 1.254.899,56 euro izan da, eta eremuko bizi kalitatea eta ekonomia garapena hobetzera berezi zuzenduko da.

Aurrekontu memorian adierazitako guztizko aurreikuspenak ez dira bete, beheko koadroko magnitude zutabearen ikus daitekeen moduan, aurreikusitakoa eta azkenean lagundutakoa erkatuz gero. Ekonomia krisiak eragina izan badu emaitzetan, akats asko gertatu dira eskaerak betetzean eta proiektu batzuk hurrengo ekitaldira geroratu dira.

<b>2014</b>	<b>ITSASALDEKO ARDATZA</b>	
<b>HELBURUA:</b>	<b>1. ITSASALDEEN JENDARTE ETA EKONOMIA BERPIZTEA</b>	<b>Magnitudeak (aurreikusitakoa/e gindakoa)</b>
<b>EKINTZA</b>	1. ITSASALDEAK SUSTATU ETA GARATZEKO LAGUNTZA LERROA	
<b>ADIERAZLEAK</b>	Itsasaldeko ekonomiarako eta biztanleentzako oinarrizko zerbitzuen jarduketa kopurua.	15/11
	Itsasaldeko ondarea kontserbatu eta hobetzeko jarduketa kopurua.	5/1

	Itsasoarekin lotutako turismo ekimenak sortu eta iraunkorki garatzeko jarduketa kopurua.	5/6
	Itsaso eta arrantzako baliabideekin bereziki lotutako enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko jarduketa kopurua.	5/3
	Arrantza sektoreko ekonomia jarduera dibertsifikatzeko jarduketa kopurua.	4/0
	Arrantza sektoreko produktu, prozesu eta teknologia berriak garatzeko lankidetzak jarduketan kopurua.	1/0
	Autoenplegu kopurua.	10/5

1.- Izenburua

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANDA TURISMOKO ESTABLEZIMENDUETAN INBERTSIOAK EGITEKO LAGUNTZA PROGRAMA.**

2.- Araua

184/2008 Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) landa-turismoko establezimenduetan inbertitzeko diru-laguntzak emateko erregimena arautu duena.

AGINDUA, 2014ko ekainaren 4koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, 2014ko ekitaldirako laguntza-deialdia egiten duena, aipatu berri den azaroaren 11ko 184/2008 Dekretuaren babesean.

3.- Diru-laguntza programaren deskribapen laburra eta helburuak

Diru-laguntza programaren helburua da landa-turismoko establezimenduetan inbertitzeko diru-laguntzak emateko erregimena arautzea, Landa Garapeneko 2007-2013 Programaren babespean (Europako Batzordearen C 704 Erabakiaz onartu zen, 2008ko otsailaren 15ean).

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurkeztutako lau proiektuetatik, aldeko ebazpena jaso dute hiruk; hori dela eta, 48.058,97 € euro eman dira guztira diru-laguntzetan. Horietatik, 14.898,28 € LGENF funtsetik finantzatu dira. Orobat, zazpi lan postu sortuko direla aurreikusi da.

Euskal Autonomia Erkidegoaren 2014ko Aurrekontu Orokorren txostenean —guk geuk prestatu genuen (Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzak)—, hutsegitez, ez ziren aurreikusi, ez ekintza hori, ez hari dagokion adierazlea. Dena dela, dagokion deialdia egiteko Agindua prestatu zenean, lortu nahi diren helburu hauek jaso ziren aurrekontuen memorian.

i.- Nekazaritzakoak ez diren askotaritze-jarduerak egiteko babesa

Babesa jaso duen establezimendu kopurua: 8

Sortutako lanpostuak: 12

Ikus daitekeenez, ez dira helburuak bete: oraindik ere ekonomia-egoera eskasean bizi gara eta horrek hein handi batean mugatzen du halako inbertsioak egiteko aukera.

1.- Izenburua

**NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO USTIATEGIETAN SASOIKO LANA EGITEN DUTENENTZAKO OSTATUETARAKO DIRULAGUNTZAK**

2.- Araua

Nekazaritza eta abeltzaintzako ustategietan sasoiko lana egiten dutenentzako ostatueterako dirulaguntzak arautzen dituen apirilaren 17ko 62/2007 Dekretua.

AGINDUA, 2014ko ekainaren 4koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinen bidez, nekazaritza eta abeltzaintzako sektorean sasoiko lana egiten dutenentzako ostatuak diruz laguntzeko deialdia egiten da 2014. ekitaldirako, apirilaren 17ko 62/2007 Dekretuan aurreikusi bezala.

3.- Dirulaguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua: Euskal Autonomia Erkidegokonekazaritza eta abeltzaintzako ustategietan sasoikolana egiten dutenentzako ostatuak eraiki, egokitu, hobetu edo ekipatzeko diru-laguntzen erregimena ezarri eta arautzea, sasoiko langileentzat diren ostatu kolektibo publikoen eta pribatuen sarea gehitu eta hobetzeko jardueri ekitea; sasoiko langileak gure artean daudenean integratzea xede izanik. Sasoiko Langileen Arretarako III. Plan Integralarekin (2013-2016) bat eginda, 2013ko apirilaren 17an Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak Erakunde Arteko Mahaia onartu zuen.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko ekitaldian lau ostatu hobetzeko inbertsioak onartu dira eta emandako laguntza 13.233,72 € izan da. 38 ostatu plaza hobetu dira Arabako Errioxan.

Helburuak gainditu dira lagundutako plaza eta ostatu kopuruari dagokionez helburua 36 plaza eta 3 ostatu zen, baina plaza kopurua handitu behar da, baita EAEko nekazaritza eta abeltzaintzako sektorean eskatutako sasoiko langileentzako ostatuak sortzea sustatu ere.

1.- Izenburua

**NAZIOARTEKOTZE BEKAK.**

2.- Araua

- [2011ko apirilaren 13ko AGINDUA](#) (78/2011 zenbakiko EHAA), Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, Nazioartekotze Beken Programa arautzen duena.
- [2013ko martxoaren 20ko AGINDUA](#), (65/2013 zenbakiko EHAA), Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Nazioartekotze Bekak programa arautzen duen agindua aldatzekoa.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburu nagusia da Kanpo Merkataritza eta Nazioartekotze arloko titulua duten gazteak prestatzea, antolakunde multilokalizatuen enpresa-kudeaketan espezializa daitezen. Horretarako, unibertsitateko espezializazio teorikoa ematen du programak, eta, horrekin batera, esperientzia administratiboa sustapeneko organismoetan eta praktika enpresako lanetan.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programa uzten dutenen kopurua hutsaren hurrengo denez, bekadun asko laneratzen dira; gehienetan, praktikak egin dituzten enpresa kolaboratzaileetan. Bestalde, gero eta enpresa gehiagok eskatzen dituzte bekadunak praktikak egiteko.



1.- Izenburua

**GLOBAL TRAINING BEKAK.**

2.- Araua

[2014ko martxoaren 26ko AGINDUA](#), (64. zenbakiko EHAA) Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira unibertsitateko eta goi-mailako lanbide-heziketako titulazioa duten gazteek atzerriko enpresetan eta erakundeetan praktikak egin ahal izateko «Global Training» deituriko beken programa abian jartzeko ahalmena duten erakundeentzako laguntzak.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko gazteak nazioartean mugitzera bultzatzea, beren profil akademikoari lotutako jarduerak eta proiektuak atzerriko herrialdeetako enpresetan eta erakundeetan egiteko, aldeztu aurretik planifikatutako trebakuntza praktikoko plan batekin.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Agindu arautzailean oinarritutako lehia-prozesuan kalifikazio onena lortu zuten 5 entitate kudeatzaileekin gauzatu zen 2014ko deialdiko lankidetzak. Horri esker, 370 bekadun hautatu eta mobilizatu ziren, eta 2015eko uda aurretik amaituko dute praktikaldia.

Gaur egun, Global Training programaren lehenengo bi edizioen behin betiko ebaluazioa eginda, eta 2012 eta 2013ko deialdiei dagozkien praktikaldiak burututa, esan dezakegu lortu dela: protagonista nagusien, bekarien, gogobetetasun handia eta baita kudeaketan laguntzen duten entitateena eta praktikak egiteko aukera ematen duten enpresa eta entitateena ere, eta horrekin betetzat ematen da helburu nagusia, hau da, mugikortasun eta gaikuntza profesionala bultzatzea.

Programak izan duen erantzunaren datuak, aurkeztutako eskaeren arabera:

1.557 eskaera 2012an, 2.042 2013an, eta 1.399 2014an.

Multzoan hartuta, %40ko laneratzea lortu da itxitako edizioetan, eta portzentaje hori oso positibotzat jotzen da.

1.- Izenburua

**GLOBAL LEHIAN**- Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako enpresak atzerrian sustatzeko eta inplementatzeko ekintzak egiten laguntzen du, nazioartekotzea eta kanpo-lehiakortasuna sustatze aldera.

2.- Araua

2014ko martxoaren 19ko AGINDUA, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko sailburuarena, banaka nahiz lankidetzan jarduten duten ETEen nazioartekotzeari laguntzeko Global Lehian programa garatzekoa.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Global Lehian programak itzuli beharrik ez duten diru-laguntzak ematen ditu, enpresek nazioartekotzeari dagokionez duten heldutasun-mailaren arabera ordenatuta, hiru etapa bereiziz:

- Hasiera
- Sendotzea
- Atzerrian ezartzea
- Talentua aktibatzea eta antolakundeak merkatu globalera egokitzea.

Hasierako etapa, Sendotzekoa eta Atzerrian ezartzekoa elkarren segidako etapa gisa ikusten dira, eta, horregatik, etapa bateko laguntzak lortu ahal izateko, aurreko etapa gainditu izana eskatzen da. Aitzitik, Talentua aktibatzeko eta antolakundeak merkatu globalera egokitzeko etapa potentzialki konkurrentzian egon daitekeela uste da beste hirurekin.

Diruz laguntzeko moduko gastuen artean sartzen dira nazioartekotze-plana martxan jartzeko ekintzak, funtzionamendu eta egitura eta eraketako gastuak, kontuan izanda enpresa individualak edo elkartuak diren, eta zein etapatarako eskatu duten laguntza.

Era berean, diruz laguntzekoak izango dira hautapen- eta kontratazio-gastuak talentua aktibatzeko etapan.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Azken urteetan, krisia izan arren, euskal esportazioek hazten jarraitu dute errekor historikoetara iristeraino. Global Lehian programak atzerriko merkatuetara irteteko aukera eman die enpresa txikiei (plantillan 50 langile baino gutxiago dituztenei), nazioartekotzeko laguntza eman die, bai lehenengo fasean (hasierako etapan) eta baita hurrengo faseetan ere, esportazio-jarduera erregularra duten enpresei (sendotzeko etapa).

Era berean atzerrian ezartzen lagundu du, enpresa esportatzaileak sendotuz eta finkatuz.

1.- Izenburua

**KLUSTER PROGRAMA.**

Euskal Autonomia Erkidegoko lehentasunezko klusterretako enpresa-taldeentzako laguntzak.

2.- Araua

Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2000ko azaroaren 28ko Aginduan Euskal Autonomia Erkidegoko lehentasunezko klusterretako enpresa-taldeentzako laguntzak arautzen dira (2000ko abenduaren 11ko EHAA, 235. zk.).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da misio nagusitzat, lankidetzaren bitartez, taldeko enpresen lehiakortasuna hobetzea duten lehentasuneko klusterretako enpresa-taldeei laguntza ematea.

Misio hori aurrera eramateak hainbat alderdi barne hartzen ditu: erronka estrategikoak identifikatu ahal izateko behar adinako gogoeta ematea, kideen arteko komunikazioa eta gardentasuna bideratzea, aukera eta interes komunak identifikatzea, interesdunak harremanetan jartzea, eta elkarlana bultzatzea enpresen artean akordioak lortu arte, erronka estrategikoei erantzuteko helburu komunak erdiesteko bidean.

Diru-laguntza eman ahal izango zaie entitate onuradunek misio hori aurrera eramateko martxan jartzen dituzten ekintzei.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Klusterrentzat aurreikusitako laguntzak itzuli beharrik ez duten diru-laguntzen bidez gauzatzen dira, eta hitzarmenen bidez artikulatzen dira, herri-administrazioaren eta ekimen pribatuaren lankidetzatarteko, funtsezkoa baita jarduera horren helburua lortzeko. Planteamendu horrekiko koherentzia mantenduz, hitzarmenetan jasotzen diren ekintzak arlo estrategikoetan sartzen dira, hala nola Nazioartekotzean, Berrikuntza Teknologikoan eta Kudeaketaren Berrikuntzan, eta baita sektore jakin baterako estrategikotzat jotzen diren beste arlo batzuetan ere.

2014an 11 hitzarmen sinatu dira kluster-taldeekin, eta 1.800.000 € jarri dira guztira.

Euskal industrian nagusi diren sektoreak barne hartzen dituzte kluster horiek: aeronautika, etxetresna elektrikoaren osagaiak, energia, makina-erreminta, automozioa, ingurumena, papera, informazio-teknologiak, itsasgintza, portuak eta ikus-entzunezkoak. Bestalde, oso garrantzitsua da programa horrek euskal industriaren ehunean duen efektu biderkatzailea.

Programak lortzen du kluster horietako enpresen lehiakortasuna hobetzea, kluster-elkarteei garatzen eta martxan jartzen dituzten proiektuen bitartez.

1.- Izenburua

**AURREKLUSTER PROGRAMA.**

Euskal Autonomia Erkidegoan aurrekluster sektorialtzat jotzen diren enpresa-elkarteentzako laguntzak.

2.- Araua

2009ko urriaren 20ko Agindua, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena (2009ko urriaren 20ko EHAA, 201. zenbakia), Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekluster sektorialtzat jotzen diren enpresa-elkartei bideratutako laguntzak arautzekoa, 2010eko apirilaren 21eko Aginduak aldatua (2010eko maiatzaren 4ko EHAA, 81. zenbakia).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da enpresen arteko lankidetzaren bidez sektore bateko enpresen lehiakortasuna areagotu nahi duten enpresa-taldeei laguntzea. Prozesu horretan behar adinako heldutasuna lortzen dutenean, aurrekluster elkarte horiek lehentasunezko kluster izatera pasatu ahal izango dira.

Diru-laguntza jaso dezaketen ekintzat jotzen dira funtsezko misioa betetzera bideratzen direnak, hau da, aurrekluster sektorialetako enpresen lehiakortasuna hobetzeko egiten direnak lankidetzaren bitartez. Ekintza horiek enpresen arteko akordioaren bitartez gauzatuko dira azkenean, erronka estrategikoei erantzuten dieten helburu komunak lortzeko. Era berean, modu horizontalean azken xede gisa lankidetzaren sortzea helburu duten ekintzak diruz lagundu ahal izango dira.

Arlo estrategiko hauetakoak izango dira ekintzak: Nazioartekotzea, Berrikuntza Teknologikoa eta Kudeaketaren Berrikuntza, eta baita sektore jakin baterako estrategikotzat jotzen diren beste arlo batzuetakoak ere.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurreklusterentzat aurreikusitako laguntzak itzuli beharrik ez duten diru-laguntzen bidez gauzatzen dira, eta hitzarmenen bidez artikulatzen dira, herri-administrazioaren eta ekimen pribatuaren lankidetzaren bitartez, funtsezkoa baita jarduketaren helburua lortzeko.

Planteamendu horrekiko koherentzia mantenduz, hitzarmenetan jasotzen dira politika industrialean ezarritako arlo estrategikoetan sartzen diren hainbat ekintza.

Aurrekluster programan 11 hitzarmen sinatu dira 2014an aurrekluster-taldeekin, eta 600.000 € jarri dira guztira.

Programak lortzen du aurrekluster horietako enpresen lehiakortasuna hobetzea, arlo estrategiko desberdinetan martxan jarritako proiektuen bitartez.

Era berean, esan behar da efektu biderkatzaile handia duela programak euskal industria osoan, eta lortzen den eragin estrategikoa eta lehiakortasun-hobetzea askoz handiagoa dela emandako laguntza nahiko txikiaren zenbatekoa baino.

1.- Izenburua

**EUSKADIKO TURISMO-LEHIAKORTASUNA BULTZATZEKO LAGUNTZA-PROGRAMA**

2.- Araua

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko ekainaren 18ko agindua, Euskadiko turismo lehiakortasuna bultzatzeko laguntza programa arautzen duena.

3. Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Irabazteko asmorik ez duten erakunde publiko eta pribatuei zuzendutako programa da, baldin eta euren helburua edota eskumenak turismo jarduera garatu eta sustatzea badira besteak beste. Izan ere, programaren xedea Euskadiko turismo lehiakortasuna bultzatzea da, ondoko jarduerak egiteko itzuli beharrekoak ez diren dirulaguntzen bidez:

- Turismoa kudeatzeko ereduan sektore horretako eragile publiko eta pribatuak barne biltzen dituzten eskualdeko turismo lankidetzarako erakundeak sortzea eta mantentzea, turismo kudeaketarako egiturak, eta hiriburuetan turismoa sustatzen duten hiru erakundeak.
- Helmugan lehiakortasuna hobetzea.
- Eskualdeko turismo lankidetzarako erakundeek eta turismo kudeaketarako egiturek kudeatutako turismo produktuak sortzea eta garatzea, betiere EAEko Administrazioak sustatutako turismo planekin bat badatoz.
- Hiriburuetan turismoa sustatzen duten hiru erakundeek kudeatutako turismo produktuak eta jomugak sortzea, garatzea, sustatzea eta horien marketina egitea, beti ere Euskadiko Turismoaren Marketin Planarekin bat badatoz.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Eskualdeko turismo lankidetzako 25 egitura indartzen lagundu da, eta horretarako 40 pertsonaren kontratazioa sustatu da, zeintzuek euren jarduketa eremuetan turismo produktuen plangintza, kudeaketa eta garapen jarduketak egin baitituzte.

Halaber, 8 pertsonaren kontratazioa sustatu da, destino horietan Kalitatearen eta IKTen jardun egokien programak inplementatzeko, eta bertan turismo jarduerarekin lotutako 936 enpresak parte hartu eta burutu dituzte prozesu guztiak.

Horrez gain, Basquetour Turismoaren Euskal Agentziarekin lankidetzan garatutako turismo produktuak garatzeko jarduerak sustatu dira, gastronomiaren inguruan batez ere.

Azkenik, EAEko hiru hiriburuetakoko turismo produktuen sormen, garapen, sustapen eta marketin jarduketak bultzatu dira, alegia, lehendik Basquetour-ekin adostutako jarduketak, zertarako eta ekintzak koordinatzeko, ahaleginak batzeko, kostuak aurrezteko, eta Euskadi turismo merkatu oso-oso lehiakorrean leku onean jartzeko zereginean eraginkorrakoak izateko.

1.- Izenburua

**TURISMO ENPRESEN MODERNIZAZIOARI ETA LEHIAKORTASUNAREN HOBEKUNTZARI LAGUNTZAK EMATEKO PROGRAMA**

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko ekainaren 11koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, turismo enpresen lehiakortasuna hobetu eta modernizatzeko laguntza programa arautzen duena.

3. Dirulaguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen xedea turismo-enpresen hobekuntza bultzatzea da, honako hau lortzeko: bezeroei eta merkatura bideratutako kalitatezko turismo-eskaintza lehiakorrago baten garapena erraztea; Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) harrera eta ezarpena bultzatzea, enpresen eta bezeroen arteko interakzioa eta turismo negozioen eraginkortasuna hobetzeko; turismoko enpresa, zerbitzu eta produktu berrien sorkuntza eta ezarpena bultzatzea, merkatuan berritzaileak izanik eta/edo hainbat enpresaren arteko lankidetzatik eta baterako ekimenetik sortu badira, hori guztia gizarte, ekonomia eta ingurumen iraunkortasunaren irizpideak kontuan izanik.

Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden enpresen jarduketak, alegia:

- a) Ekimen berritzaileak turismoaren sektorean.
- b) Lehiakorrago egiteko, turismo-eskaintza modernizatzea
- c) Turismo eskaintza Euskadiko Turismoko Irisgarritasun Eredura egokitzea.
- d) Turismoko sektorean jardun eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokaturiko enpresa eta establezimenduetan, ingurumenaren kudeaketa eta kalitate kudeaketa ziurtatu dezaketen sistemak ezartzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko ekitaldiko programaren deialdira 195 enpresa aurkeztu ziren, eta haietatik 126k jaso dute laguntza: ekimen berritzaileen lineako 49, eskaintza modernizatzeko 76 eta irisgarritasuna hobetzeko 1. Horrek 6.471.684,90 euroko inbertsioa eragin du.

Emaitzaz onak izan dira, kontuan izaki programak aldaketa garrantzitsua ekarri duela lehengo programekin alderatuz gero, turismo sektoreari berrikuntza dakarkioten proiektuak bultzatu baitira.

1.- Izenburua

**HIRI MERKATARITZAREN LANKIDETZA, DINAMIZAZIO ETA LEHIAKORTASUNEN ZONAKO ESTRATEGIAK SUSTATZERA BIDERATUTAKO HIRIGUNE LAGUNTZA PROGRAMA**

2.- Araua

AGINDUA ETA DEIALDIA, 2014ko uztailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Hiri Merkataritzaren Lankidetzaren, Dinamizazio eta Lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntzen Hirigune programa arautzen duena.

3.- Diru-laguntzen programaren deskribapen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen eta Merkataritza Enpresen arteko lankidetzaren egitura publiko eta pribatuak sortzeko aukera bultzatzea, udal-inguruneen hiri-ekonomiako eremu gisa balioa emango dieten zonako estrategiak garatzearen.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programaren helburua zera da, hiri-inguruneetako merkataritzaren lankidetzaren eta dinamizazioaren estrategiak garatzen laguntzea, suspertu beharreko hiriguneetako merkataritza-lehiakortasuna eta posizionamendua hobetzera bideratutako estrategiak, alegia.

2014ko ekitaldian guztira 80 elkartek aurkeztu zituzten eskabideak 485 jarduerara egikaritzeko. Elkarte horietatik 76k jaso dute laguntza, eta merkataritza suspertzeko 475 jarduerara gauzatu dira. Programari 1,46 milioi euroko diru-zuzkidura esleitu zitzaion, eta horrek 1,69 milioi euroko inbertsioa sorrarazi du.

Udalei dagokienez, 49 Udalek aurkeztu zituzten eskabideak 74 jardun egikaritzeko. Udal horietatik 41ek jaso dute laguntza, eta 57 jardun gauzatu dira. Jardun horiei 0,69 milioi euroko zenbatekoa esleitu zitzaion, eta horrek 2,70 milioi euroko inbertsioa sorrarazi zuen.



1.- Izenburua

**MERKATARITZA SALTOKIEN MODERNIZAZIOA BULTZATZEKO PROGRAMA**

2.- Araua

**AGINDUA**, 2014ko ekainaren 25ekoa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita merkataritza-saltokiak modernizatzeko laguntza-programa. (Uztailaren 2ko EHAA, 124. zk.)

**EBAZPENA**, 2014ko uztailaren 4koa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena. Honen bidez, argitara ematen da merkataritza-establezimenduak modernizatzeko laguntza-programan ezarritako diru-laguntzak 2014ko ekitaldian emateko deialdia. (Uztailaren 7ko EHAA, 127. zk.)

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea da Erkidegoko merkataritza-establezimenduen modernizazioa sustatzea, berrikuntzaren, establezimenduen kudeaketa-tresnen hobekuntzaren eta establezimenduen azpiegituren bidez. Merkataritza-jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren obra zibila, altzariak eta ekipamendua dira diru-laguntzaren xede.

Laguntza honako hau da: ekipamendu informatikoan egindako inbertsioaren kostu garbiaren % 20ko itzuli beharrik gabeko diru-laguntza. Gainerako inbertsioetarako, % 15 ematen da. Urtean gehienez 12.000,00 euroko diru-laguntza ematen zaio enpresa bakoitzari. Zenbateko hori ezin daiteke izan onartutako inbertsioaren % 25 baino handiagoa.

Diru-laguntzaren ehuneko horiek 2 puntu handitu daitezke enpresa Emakunderen Erakunde Laguntzaile gisa onartua baldin badago edo UNE 175001 arauaren kalitate-ziurtagiria lortu baldin badu; enpresak tarteko bikaintasun-ziurtagiria baldin badu, ehunekoa 3 puntu handitu daiteke. Honako kasu hauetan ere 5 puntu gehiago emango dira: enpresa merkatarien elkarte batean sartuta dagoenean, inbertsioa kudeaketa-softwarean egin denean edo titularrak edo enplegatuak merkataritza-sektorearekin lotura zuzena duen tituluren bat duenean.

Inbertsioak eskaera egiteko unean egin behar dira, enpresen aktiboan txertatuz; beraz, eskabidearekin batera inbertsioak justifikatzen dituzten fakturak aurkeztu behar dira.

Diru-laguntza ordainketa bakar batean ematen da.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko ekitaldian 1.374 eskaera aurkeztu ziren guztira (Arabak 129, Bizkaian 640 eta Gipuzkoan 605), eta horrek 26.311.214,35 euroko inbertsio induzitua eragin zuen.

1.106 eskaeratan eman zen aldeko ebazpena, eta guztira 3.324.506,00 euro banatu ziren diru-laguntzetan.

1.- Izenburua

**MERKATARITZA DINAMIZATZEKO BULEGOETARAKO LAGUNTZAK**

2.- Araua

Agindua, 2010eko urriaren 20koa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, Merkataritza Dinamizatzeko Bulegoetarako laguntzak ezartzen eta arautzen dituen.

Agindua, 2014ko ekainaren 26koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinarekin honako agindu hau aldatzen baita: Agindua, 2010eko urriaren 20koa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, Merkataritza Dinamizatzeko Bulegoetarako laguntzak ezartzen eta arautzen dituen.

Ebazpena, 2014ko irailaren 3koa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Merkataritza Sustatzeko Bulegoentzako 2014ko ekitaldiko laguntzak emateko deialdia.

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Merkataritza-banaketaren sektoreari, langile kualifikatuen bidez eta doan, laguntza tekniko zerbitzua ematea da programaren helburua. Laguntza hauen erakunde onuradunak merkataritza elkarte, federazio edo taldeak, Udalak edo Udalek sustatutako garapen-erakundeak izan daitezke.

Merkataritza dinamizatzeko bulegoen bidez aholkularitza espezializatua eskaini, berrikuntza, kalitatea eta teknologia berriei lotutako prozesuak bultzatu eta udal-mailan edo banaketakatean lankidetzak-estrategiak sustatu nahi dira.

Bulegoaren zerbitzua beteko duen pertsona urtebetez lanaldi osoan kontratatuzeko kostuen % 86,7ra arte estal dezake laguntzaren zenbatekoak. Bulego bakoitzak 38.500 euroko diru-laguntza jasoko du gehienez.

Laguntzak emateko prozesua publizitatearen, lehiaren eta objektibotasunaren printzipioei jarraituz egindako lehiaketa da.

Laguntza 2 ordainketatan emango da; % 75 emakida-ebazpena eman ondoren eta gainerako % 25 araudian ezarritako baldintzak betetzen direnean.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014an programa honetarako bideratutako kreditua 1.270.500,00 euro izan da, eta osorik egikaritu da deialdiaren ebazpenaren arabera. Merkatarien elkarte eta federazioak, Udalak eta Udalek sustatutako garapen-erakundeak izan dira onuradunak.

Honako hauek izan dira lurraldeen arabera aurkeztutako eskaerak: 4 Araban, 16 Bizkaian eta 14 Gipuzkoan.

2013an 33 eskaera aurkeztu ziren; 2012an, 34.

1.- Izenburua

**MERKATARITZA BANAKETAREN DINAMIZATZAILEEN (BEKADUNAK)  
PRESTAKUNTZARAKO LAGUNTZA PROGRAMA**

2.- Araua

Agindua, 2011ko ekainaren 15ekoa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, merkataritza-banaketaren dinamizatzaileak prestatzeko laguntzen programa arautzen duena (ekainaren 28ko EHAA).

Ebazpena, 2014ko ekainaren 30ekoa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, 2014ko ekitaldiari dagokionez, merkataritzako banaketaren dinamizatzaileak prestatzeko laguntzak emateko deialdia argitara emateko dena (ekainaren 30eko EHAA).

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua merkataritza-banaketan espezializatutako teknikarien prestakuntza da. Horretarako, 180 orduko prestakuntza teorikoko ikastaro bat eskaintzen da; dagokigun sektorean espezializatutako pertsonak ematen dute ikastaroa eta orain arte Sarrikoko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak antolatu izan du, betiere gaien espezializatutako irakasleen nahiz merkataritza-banaketaren sektoreari lotutako irakaskuntzatik kanpoko pertsonen laguntzarekin.

Laguntzen esleipendunak batez ere Merkataritza Dinamizatzeko Bulegoetara edo banaketaren arloarekin zerikusia duten erakundeetara bideratzen dira urtebetez. Erakunde horietan garatutako lanarekin eta jasotzen duten prestakuntza tutorizatuarekin jakintza-maila handia lortzen dute merkataritza-banaketaren sektorean, prestakuntza teorikoa prestakuntza praktikoarekin osatuz. Egindako lanaren ordain gisa, 15.000 euroko beka jasotzen dute.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programa honen bidez 31 unibertsitateko tituluduni merkataritza-banaketaren eremuan espezialistak izateko prestakuntza eskaintzen zaie eta kasu askotan, euren etorkizun profesionala sektore horretara bideratzen dute. Horrek eragin mesedegarria du sektorean, eremu horretako profesional kualifikatuak izatea hain zuzen.

1.- Izenburua

**GAUZATU-INDUSTRIA PROGRAMA, oinarri teknologikoko ete-ak edo ete berritzaileak sortu edo garatzea bultzatzekoa, etorkizunerako lehiakortasun-estrategia gisara, enplegua sortzen duen inbertsioa lagunduz eta, aldi berean, zailtasun gehien dituzten eremu geografikoak susper daitezen bultzatuz, lurralde-kohesioa hobetze aldera.**

2.- Araua

Agindua, 2007ko maiatzaren 21ekoa (2007-06-12ko EHAA, 112. zk.)

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza honen bidez, aurrerakin itzulgarriak ematen zaizkie gutxienez 120.000 euroko onartutako inbertsioa duten eta, aldi berean, luzeen jota ere 36 hilabeteko epean gutxienez 3 enplegu sortzen dituzten proiektuei.

Laguntza jaso dezakeen inbertsioaren % 35era artekoak izango dira laguntza osatzen duten itzuli beharreko aurrerakinak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan euren inbertsio-proiektuak garatzen dituzten

ETEEK honako hauek jaso ditzakete:

- Laguntza jaso dezakeen inbertsioaren %35eko aurrerakin itzulgarriak, teknologia-oinarrikotzat jotako enpresa txikientzat.
- Laguntza jaso dezakeen inbertsioaren %30eko aurrerakin itzulgarriak, teknologia-oinarrikotzat jotako enpresa ertainentzat.
- Laguntza jaso dezakeen inbertsioaren %30eko aurrerakin itzulgarriak soilik berritzailetzat jotako enpresa txikientzat.
- Laguntza jaso dezakeen inbertsioaren %25eko aurrerakin itzulgarriak soilik berritzailetzat jotako enpresa ertainentzat.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

**2014KO DEIALDIAREN EMAITZAK**

Proiektu-kopurua 44

Onartutako inbertsioa: 91.028.483,76 EURO.

Onartutako enpleguak: 531

Emandako itzuli beharreko aurrerakinak: 25.945.446,51 EURO.

**ERABILGARRITASUNA ETA ERAGIN SOZIALA:**

Programa honek oinarri teknologikoa duten edo berritzaileak diren enpresak sustatzean eragiten du eta, horrenbestez, garapen teknologikoan eta berrikuntzan. EAEn Teknologiaren Euskal Sarearen bidez eskuragarri dugu azpiegitura teknologikoak funtsezko eginkizuna du mota honetako enpresak sortzeko orduan. Aldi berean, eragingo duen elkarrekotasun-mailari esker, oinarri teknologikoko enpresak teknologia-eskatzaille kualifikatu bilakatuko dira eta, horren ondorioz, eskaintza teknologikoak ematen dituen zerbitzuak egokitu beharko dira.

1.- Izenburua

**INBERTSIO-PROIEKTUAK, ESKARIAK EDOTA KONTRATUAK FINANTZATZEKO APARTEKO ABALEN PROGRAMA**

2.- Araua

416/2013 Dekretua, irailaren 24koa, enpresak finantzatzeko abal publikoak emateko ezohiko programa bat garatzeko dena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Kapital zirkulatzailaren finantzaziora jotzeko aukera erraztea gure ekonomia eta enpleguarentzat funtsezkoak diren enpresen multzo bati. Enpresa horiek, beraiek bakarrik edo beste batzuekin batera, proiektu garrantzitsuetan sartzen dira, gehienak nazioarteko merkatuan, eta proiektu horiek garatzeko eta gauzatzeko beste eskari bat gehitzen diete Euskadin dituzten hornitzaileei.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014. urtean ez da inolako proiekturik onartu.

288 milioi euroko baliora iristen ziren proiektuak aztertu dira, baina dela hornidura-kontratua formalizatu ez delako, dela abal publikorik eskatu gabe enpresek finantzazioa lortu dutelako, ez da eragiketa batean ere parte hartu. Horrela, ez da alde batera uzten 2015ean proiektu horietakoren bat berriro aztertzea eta abal bat behar izatea.

1.- Izenburua

**BIDERATU BERRIA PROGRAMA**

2.- Araua

158/2014 Dekretua, uztailaren 29koa, krisialdiak jotako enpresak berregituratu eta bultzatzeko laguntzak ezartzen dituen.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

BIDERATU BERRIA programak epe ertain eta luzean bideragarritasuna ezartzen laguntzen duten berregituraketa-planetan sartutako neurriak hartzea sustatzen du.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014. urtean ez da berregituraketa-proiektu bat ere aintzat hartu. Horrekin lotuta, esan behar da proiektu batek ere baiezkoa jaso ez duen arren, 8 berregituraketa-plan kudeatu zirela, baina, beharrezko akordioak lortu ez zirenez gero, ezin izan zirela gauzatu. Baliteke plan horietako batzuk 2015eko deialdian aurkeztea.

1.- Izenburua

**GAITEK PROGRAMA**

2.- Araua

Agindua, 2008ko azaroaren 27koa (EHAA, 245/2008 zk.a), Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, zeinaren bidez GAITEK programa arautzen baita, produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko programa.

Agindua, 2009ko abenduaren 23koa (EHAA, 9/2010 zk.a), Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, GAITEK programa, produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko programa, arautzen duen agindua aldatzekoa.

Agindua, 2013ko abenduaren 4koa (EHAA, 242/2013 zenbakia), Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, GAITEK programa, produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko programa, arautzen duen agindua bigarrenez aldatzekoa.

Ebazpena, 2013ko abenduaren 24koa (EHAA, 248/2013 zk.a), Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena. Honen bidez, argitara ematen da 2014ko ekitaldirako, GAITEK programa (produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko laguntza-programa) arautzen duen Aginduan ezarritako esparruaren barruan, laguntzak emateko deialdia.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea da itzulgarriak ez diren diru-laguntzen bidez laguntzak ematea, eta, horren ondorioz, produktu berriak garatzeko proiektuak sustatzea. Proiektuek I+G-b esparruko jarduera multzo koherente bat jaso behar dute, eta produktu originalak nahiz egungoak baino hobekiak garatu behar dituzte, merkatuak eta gizarteak eskatzen dutena betetzeko.

Proiektuak indibidualki egin ahal izango dira, edo bi enpresa edo gehiago lankidetzan arituta, eta, hala egokituz gero, ZTBESko agente kreditatuak lankide izanda zein ez. Laguntzak enpresek (handiek bezala txiki eta ertainek ere), fundazioek eta enpresa-elkarteek jaso ahal izango dituzte.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean 2014. urteko deialdia. 2014an guztira emandako diru-laguntza: 36.365.716 euro.

Eskaerak: 1.333 proiektu aurkeztu dira, eta 796 onartu.

GAITEK programa baliagarria da enpresen gaitasuna eta ezagutza handitzeko, eta, horrenbestez, hazkunde ekonomikoa areagotzeko, eta,aldi berean, egungo gizarte dinamiko, konplexu eta globalak unean-unean dituen behar berriekin eta iraunkortasun-premiarekin zerikusia duten eskari zientifiko-teknologikoei erantzun egokia emateko.

Gizarte-eragina: enpresek, produktu berriak eskaintzen dituztenez, lehiakortasun handiagoa izatearen ondoriozko hazkunde ekonomikoa.



1.- Izenburua

**NETs PROGRAMA. (2014ko ekitaldia)**

2.- Araua

Agindua, 2008ko azaroaren 27koa (EHAA, 245/2008 zk.a), Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, oinarri zientifiko eta teknologikoa duten enpresak merkaturatzeko proiektuak egiteko NETs laguntza programa arautzen duena

Agindua, 2009ko abenduaren 23koa (EHAA, 9/2010 zk.a), Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, NETS programa, oinarri zientifiko eta teknologikoa duten enpresak merkaturatzeko proiektuak egiten laguntzeko programa, arautzen duen agindua aldatzekoa.

Agindua, 2013ko abenduaren 4koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, NETS programa, oinarri zientifiko eta teknologikoa duten enpresak merkaturatzeko proiektuak egiten laguntzeko programa, arautzen duen agindua bigarrenez aldatzekoa.

Ebazpena, 2013ko abenduaren 24koa (EHAA, 248/2013 zk.a), Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, argitara ematen duena NETS programa, oinarri zientifiko eta teknologikoa duten enpresak merkaturatzeko proiektuak egiten laguntzeko programa, arautzen duen agindua ezarritako esparruaren barruan 2014ko ekitaldirako laguntzak emateko deialdia.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea da itzulgarriak ez diren diru-laguntzen bidez laguntzak ematea, eta, horren ondorioz, oinarri zientifiko eta teknologikoa duten enpresa berriak merkaturatzeko proiektuak sustatzea. Proiektuak indibidualki egin ahal izango dira, edo bi enpresa edo gehiago lankidetzan arituta. Honako hauek eskuratu ahal izango dituzte laguntzak: enpresek (handiek, txikiak eta ertainak), fundazioek, enpresa-elkarteek eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean (ZTBES) ikerketa teknologikoa egiten duten erakundeek.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014. urteko deialdia.

2014an guztira emandako diru-laguntza: 3.785.714 €.

Eskaerak: 128 proiektu aurkeztu dira, eta 82 onartu.

Programa baliagarria da enpresen gaitasuna eta ezagutza handitzeko, eta, horrenbestez, hazkunde ekonomikoa areagotzeko, eta, aldi berean, egungo gizarte dinamiko, konplexu eta

globalak unean-unean dituen behar berriekin eta iraunkortasun-premiarekin zerikusia duten eskari zientifiko-teknologikoei erantzun egokia emateko.

Gizarte-eragina: hazkunde ekonomikoa, ezagutza teknologikoan intentsiboak diren enpresa berriak sortzearen ondorioz.

1.- Izenburua

**ETORGAI programa**

**EAEn ikerketa industrial eta garapen esperimental estrategikoa gauzatzea xede duten proiektuak egiten laguntzeko programa bat da.**

2.- Araua

AGINDUA, 2011ko azaroaren 30ekoa (EHAA, 246/2011 zk.a), zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan industria-ikerketako eta garapen esperimentaleko proiektu estrategikoak egiteko laguntzei buruzko programa arautzen baita. ETORGAI programa. (EHAA, 246. zk.a, 2011/12/29koa).

AGINDUA, 2013ko abenduaren 4koa (EHAA, 242/2013 zk.a), Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan industria-ikerketako eta garapen esperimentaleko proiektu estrategikoak egiteko laguntza-programa arautzen duen agindua aldatzekoa. Etorgai Programa.

EBAZPENA, 2013ko abenduaren 24koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena. Honen bidez, argitara ematen da Etorgai programaren (EHAA, 248. zk.a, 2013/12/31) 2014ko ekitaldiko deialdia, betiere industria-ikerketako eta garapen esperimental estrategikoko proiektu integratuak Euskal Autonomia Erkidegoan egiteko laguntza-programa (Etorgai programa) arautzen duen Aginduan ezarritako esparruaren barruan.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea da urte anitzeko laguntzak ematea itzulgarriak ez diren diru-laguntzen bidez, EAEn, ikerketa industrial eta garapen esperimental estrategikoari dagokionez, I+G+b proiektuak sustatzeko, Eusko Jaurlaritzaren zientzia-, teknologia- eta ikerketa-politiken barruan eta/edo Europar Batasunaren politika zientifiko-teknologikoen barruan dauden eta enpresek garatzen dituzten jarduketara estrategikoko esparruetan.

Enpresa-partzuergoek egindako lankidetzaproiektuak dira; partzuergo horietan gutxienez hiru enpresa egongo dira, eta haietako bat, gutxienez, ETE izango da, eta beste bat, gutxienez, enpresa ertaina edo handia. Era berean, beharrezkoa izango da gutxienez ZTBESko agente kreditatu batek parte hartzea partzuergoaren azpikontratatu moduan.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Hiru urtez behingo 2014ko deialdia.

2014ko deialdian guztira emandako diru-laguntza: 29.000.000,00 €. Onartutako proiektuen 2014ko, 2015eko eta 2016ko urtekoen artean banatzekoa.

Eskaerak: 51 proiektu aurkeztu dira, eta 29 onartu.

ETORGAI programa baliagarria da lankidetzaren publiko-pribatua garatzeko, eta enpresa-partzuergoak sustatzeko, ikerketa egiten badute jarduketara estrategikoko esparruetan, Euskadiko ekonomia sustatzen badute, eta, aldi berean, I+G+b arloko lankidetzaren-kultura zabaltzen badute zientzia-, teknologia-, enpresa-sistemako eragile guztien artean.

Gizarte-eragina: hazkunde ekonomikoa, enpresen lehiakortasun handiagoak eraginda, produktu, prozesu edo zerbitzu berriak eskaintzearen eta oinarri zientifiko-teknologikoko enpresa eta patente berriak sortzearen ondorioz, horrekin guztiarekin enplegua sortu eta euskal enpresa-sarea dibertsifikatu nahian.

1.- Izenburua

**ETORTEK PROGRAMA**

2.- Araua

Agindua, 2002ko urriaren 7koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, ikerketa estrategikorako laguntzen programa (ETORTEK programa) arautzen duena. EHAA, 191. zk.a, 2002/10/08koa.

Agindua, 2003ko apirilaren 16koa, ikerketa estrategikorako laguntzen programa, ETORTEK programa, arautzen duen agindua (2002ko urriaren 7koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena) aldatzekoa. EHAA, 84. zk.a, 2003/05/02koa.

Agindua, 2005eko martxoaren 22koa, ikerketa estrategikorako laguntzen programa, ETORTEK programa, arautzen duen agindua (2002ko urriaren 7koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena) aldatzekoa. EHAA, 61. zk.a, 2005/04/01ekoa.

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 9koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita Ikerketa Estrategikoa sustatzeko laguntzak arautzen dituen aginduaren barruan egindako 2014rako laguntzen deialdia (Etorrek programa). EHAA, 134. zk.a, 2014/07/16koa

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa ikerketa estrategikoan laguntzeko da, I+G+b proiektuak eginez ezagutzaren sorrera eta garapenean, balioa sortzeko egungo enpresetan, eta enpresa-jarduera berrien agerpena sustatzeko zabaltzen ari diren sektoreetan bezala etorkizunekoetan ere, eta erakunde onuradunak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareak kreditatutako agenteak dira.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Bi urtez behingo 2014ko deialdia.

Aurrekontua, guztira: 18.000.000 €, onartutako proiektuen 2014ko eta 2015eko urtekoen artean banatzekoa.

Eskaerak: 19

Onartutako proiektuak: 11

Proiektuak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean adierazitako ikerketa estrategikoko arloei dagozkie.

Programa baliagarria da ezagutza lortzeko Euskal Autonomia Erkidegoarentzat interes estrategikoa duten garapen teknologikoko esparruetan.

Gizarte-eragina: Ezagutza estrategikoa sortzea garapenerako, enpresen lehiakortasuna sustatzea, enpresa-sektore berriak sortzea etorkizunean.

1.- Izenburua

**EMAITEK PROGRAMA**

2.- Araua

AGINDUA, 2008ko irailaren 25ekoa (EHAA, 198/2008 zk.a), Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, zentro teknologikoak eta haien korporazio eta aliantza teknologikoak laguntzeko programa arautzen duena. - EMAITEK programa.

Ebazpena, 2014ko uztailaren 9koa (EHAA, 134/2014 zk.a), Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, zentro teknologikoei eta haien korporazio eta aliantza teknologikoei laguntzeko 2014ko ekitaldirako programaren deialdia publiko egiten duena. EMAITEK programa.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-programari EMAITEK deritzo, eta bat dator EAEko Administrazioak zehaztu duen eta 2009ko Lehiakortasun Planean nahiz 2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean jasotako estrategia politiko berriarekin. Programak zentro teknologikoetarako eta haien korporazio eta aliantza teknologikoetarako Saiotek programa ordeztzen du, eta beste tresna egoki bat izan nahi du, zentro teknologikoak eta haien korporazioak emaitzetara bideratzea sustatzeko, hori beharrezkoa baita Euskal Autonomia Erkidegoak garapen iraunkorra izan dezan.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko ekitaldirako deialdia.

Aurrekontua, guztira: 28.000.000,00 €.

Laguntza eman zaio hamar zentro teknologikoren jardunari, eta bi korporazio eta aliantza teknologikoen jardura orokorreko planak gauzatu ahal izan dira.

Diruz lagundutako kopurua: Aurrekontu osoa.

Programa baliagarria da zentro teknologikoei eta haien korporazioei laguntzeko, eta finantzaketa esleitzen die, haien jardueran maila orokorrean izandako emaitzak ebaluatu eta aztertuta, bai eta diru-laguntza ere, onuradunek egiten duten jardura ez-ekonomikoaren kostu osoaren %100eko mugaraino.

Gizarte-eragina: Ezagutzak hobetzea eta ikerketen emaitzak zabaltzea, hala nola garapenerako sustapen ekonomikoa egitea, eta enpresen lehiakortasuna sustatzea, EAEk garapen jasagarria izan dezan.

1.- Izenburua

**CICs PROGRAMA**

2.- Araua

Agindua, 2008ko abuztuaren 4koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, ikerketa kooperatiboko zentroyen mailan kreditatuta dauden ZTBESko agenteentzako laguntzak arautzen dituen - CICs programa - EHAA, 158. zk.a, 2008/08/21ekoa.

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 9koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, Ikerketa Kooperatiboko Zentroyen kategoria egiazaturik izanik, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko Agenteentzako laguntzak arautzen dituen Aginduak ezarritako esparruan 2014ko ekitaldirako laguntzetarako deialdia ezagutarazten duena. EHAA, 134. zk.a, 2014/07/16koa

Oharra: 2014ko deialdiak urteko bat biltzen du.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-programari CICs deritzo, eta bat dator EAeko Administrazioak zehaztu duen eta 2009ko Lehiakortasun Planean nahiz 2010eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean jasotako estrategia politiko berriarekin. 2010eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren helburuetako bat da ikerketa kooperatiboko zentroak sortzea eta haien garatzen laguntzea, nazioarteko zientzia-komunitateko ikertzaileak erakartzeko, eta benetako nazioarteko-proiektzioa duten ezagutza-guneak sortzeko. Ikerketa oso ezagutza zabaleko arloetara bideratu nahi du, hala nola biozientzietara, nanozientzietara edo espezializazio argiko esparruetarantzko zientzietara. Hortaz, CICs programa beste tresna egoki bat da, EAEk garapen jasagarria izan dezan behar diren ikerketa kooperatiboko zentroak sustatzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko deialdia, 2014. urterako denbora-esparrukoa.

Aurrekontua, guztira: 8.250.000,00 €

Eskaerak: Zazpi CIC eta onuradunak: Zazpi CIC

Diruz lagundutako kopurua: Aurrekontu osoa.

Programa baliagarria da ikerketa kooperatiboko zentroyei laguntzeko, eta finantzaketa esleitzen die, haien jarduera ez-ekonomikoa ebaluatu eta aztertuta, bai eta diru-laguntza ere, erakunde onuradunek egiten duten jarduera ez-ekonomikoaren kostu osoaren %100eko gehieneko mugaraino

Gizarte-eragina: Giltzarri intentsiboak izatea ezagutzari dagokionez espezializazio argiko esparruetan, eta enpresen lehiakortasuna sustatzea, EAEk garapen jasagarria izan dezan.

1.- Izenburua

**IKERTU PROGRAMA**

**Enpresetan giza baliabideak sustatzeko programa. Enpresetan giza baliabideak sendotzeko eta prestatzeko laguntzak.**

2.- Araua

Agindua, 2009ko urriaren 14koa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, giza baliabideak prestatzeko eta sustatzeko laguntzen programa arautzen duena - IKERTU programa (EHAA, 200. zk.a, 2009ko urriaren 19koa).

Agindua, 2011ko ekainaren 8koa (EHAA, 126. zk.a, 2011ko uztailaren 4koa), Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, giza baliabideak prestatu eta sustatzeko programa, Ikertu programa, garatzen duen agindua (2009ko urriaren 14koa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuarena) aldatzekoa.

Ebazpena, 2014ko urriaren 29koa (EHAA, 207. zk.a, 2014ko urriaren 30ekoa), Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, 2014ko ekitaldian, giza baliabideak prestatu eta sustatzeari dagokionez, eman beharreko laguntzetarako deialdia jendaurreko egiten duena. IKERTU programa.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Azken xedea da enpresen lehiakortasuna finkatzea, eta, horretarako, enpresetako giza baliabideak sustatzea, eta ezagutza nahiz berritzeko gaitasuna bultzatzea. Enpresentzako laguntzak dira, teknologoen eta ikertzaileen kontratazioa sustatzeko (3 urte arteko kofinantzaketa) enpresetako I+G++b arloetan, eta, horrenbestez, ikertzaileen eta teknologoen masa kritikoa handitzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014. urteko deialdia. 800.000,00 €-ko urteko aurrekontua. (Soil-soilik aurreko bi urteetan lagundutako ikertzaileen kontratuak berritzeko).

2014. urtean, 2012an eta 2013an hasitako kontratuen arteko 33 berritzea onartu da; hori, guztira, kontratatutako 33 pertsonari dagokie.

Gizarte-eragina: enpresen lehiakortasun eta garapen teknologiko handiagoa, ekonomia ezagutzan oinarrituta egotea, eta giza baliabideen eskariaren jasangarritasuna. Orain dela hamarkada batetik, bigarren eta hirugarren graduako unibertsitate-titulua duten 730 pertsona inguru izan dira onuradun, EAEko enpresetan eta ZTBESan sartu baitira.